



KIROLA
GOZATU
BIZI



UROLAKO ESKOLA KIROLA 2019-20

Kirol aniztasuna



UROLAKO ESKOLA KIROLA (UEK)

Azpeiti, Azkoiti eta Errezilgo ikastetxe eta udalek osatzen dute UEK kontseilua.

ZER DA ESKOLA KIROLA

Eskola kirolaren funtsezko izaera hezitzailea eta prestatzailea izan behar da.

Heziketa-betekizun hori, bi zentzutan ulertu behar da:

- Eskola kirola, heziketa integrala lortzeko bitarteko gisa, gizakiaren alderdi guztiak modu harmoniatsuan eta orekatuan garatuz, bai alderdi psikologikoei (intelektual, emozional edota afektiboak, baloreak ...) bai fisikoei dagokionez, betiere gizarteratzean lagunduko dien moduan.

- Eskola kirola epe luzearako kirol heziketako prozesu gisa ulertu behar da. Kirol ezberdinak irakasteko eta ikasteko prozesuak garatzen direneko etapa gisa. Betiere jarduera fisikoa eta kirola egitearen joera guztiak haintzat hartuta.

PARTE HARTZAILEAK

Azpeiti, Azkoiti eta Errezilgo ikastetxeetako 8tik 12 urte bitarteko (LH 3tik 6ra) ikasleak izango dira.



KIROLA
GOZATU
BIZI



HELBURUAK

- 1.- Gure ikasleei harremanak egiteko erraztasunak eman eta guztien partaidetza sustatu.
- 2.- Ikasleei aisiarako eta jolaserako jarduerak eskaini, jolasean ikas dezaten.
- 3.- Bizi ohitura osasungarriak sustatu.
- 4.- Talde lana bultzatu.
- 5.- Norberaren gaitasun bereziak sustatu.
- 6.- Mugimenduen eta trebetasunen koordinazioa hobetu.
- 7.- Euskararen erabilera.
- 8.- Kirol espezialitate bakoitzaren oinarrizko arauak erakutsi.
- 9.- Norberarekiko, taldearekiko, epailearekiko, aurkariarekiko, joko arauetikiko errespetua sustatu.
- 10.- Osasun eta higiene ohiturak bereganatu.

IZEN EMATEA

Ikasle bakoitzak bere ikastetxean emango du izena.

Ikaslearen izen ematearekin: Eskola kirol kontseiluak eskeiniko duen kirol egutegiko ekintza guztietan parte hartzeko konpromisoa hartzen da.

OHARRAK

Asegurua: Eskola Kiroleko egitarauko edozein jardueratan parte hartuko duten 8 urtetik gorako ikasleek poliza aseguruaren onuradun izango dira. Aseguru poliza horrek kirola egiteak dakartzen arriskuen erantzukizuna bermatuko du ondoko kasuetan: Erantzukizun zibiletan, gorputz atalen galerengatiko kalteordainak, elbarritasun eta heriotza. Aseguru horrek ez du inola ere osasun zerbitzua bere gain hartuko, hau familiako aseguruaren esku dago.



KIROLARI ONAREN DEKALOGOA

1. Kirola aisia da.
2. Denok gara garrantzitsuak.
3. Arauak bete egin behar dira.
4. Entrenatzaileak errespetatu behar ditut.
5. Nire aurkariak errespetatu behar ditut.
6. Epailearen irudia errespetatu behar dut.
7. Animoak eman ditzaket, inoiz ez iraindu.
8. Nire familiak eredu izan behar du.
9. Galtzen bai, baina baita irabazten ere jakin behar dut.
10. Nire goiburua garbi jokatzea da.

HEZITZAILE ONAREN DEKALOGOA

1. Gogoratu, kirola aisia dela.
2. Umeak jolastu, ondo pasa eta ikasi egin behar dutela.
3. Umeek jarrera desegokiak baldin badituzte, saiatu bideratzen edo zuzentzen.
4. Emaitzak ez dira garrantzitsuenak; baloratu eta azpimarratu talde lana, zenbat ikasi duten, zenbat hobetu diren....
5. Modu egokian hitz egin, ez iraindu, keinu zatarrak saihestu. Animatu!!!
6. Errespetatu epaileak, aurkariak eta jokalaria. Umeentzat eredu zara.
7. Joko garbia erakutsi eta bultzatu.
8. Umeei galtzen erakutsi baina baita ere irabazten.
9. Ez ezazu sekula indarkeria justifikatu.
10. Arazoen aurrean norbera saiatu bideratzen eta ezin bada koordinatzailearengana zuzendu.

IKUSLE ONAREN DEKALOGOA

1. Ez zara entrenatzailea, talde bakoitzak bere arduraduna du eta bere funtzioa errespetatu.
2. Errespetu guztiz jokatu.
3. Ez iraindu, ez errietary egin. Denak berdin animatu!!!
4. Utzi libreki goza dezaten.
5. Jolasten eta ongi pasatzen ari dira.
6. Emaitza ez da garrantzitsuenak.
7. Zure seme-alabentzako eredu izan.
8. Errespetatu ezazu epailea.
9. Ez ezazu sekula indarkeria justifikatu.
10. Zure goiburua "joko garbia" da.

UROLAKO ESKOLA KIROLA

2019-20 EGUTEGIA



Alebina (LH-5 eta 6)



KIROLA
GOZATU
BIZI



-  Atletismoa
-  Futbola
-  Herri Kirolak
-  Igeriketa
-  Saskibaloia
-  Txirrindularitza
-  Mendia
-  Eskupilota



-  Eskubaloia
-  Dantza





Iraila	
14	Hitzaldia - Herri Hezitzailea Gurasoak
21	
28	




Urria	
5	
19	
26	



Azaroa	
9	
16	
23	



Abendua	
14	
	
	

Urtarrila	
11	
18	

Otsaila	
1	
8	
15	
29	

Martxoa	
7	
14	
28	

Apirila	
4	
25	

Maiatza	
9	
16	

Ekaina	
7	 Ikaskirol

- Ikasturtean zehar, egutegian aldaketak egon daitezke.

- Aukerako zenbait ekintza ikasturtean zehar zehaztuko dira (Sanjuandegiko Krosa, Urrestillako Krosa,...)